**Jabetza Eskola**
**Escuela de Empoderamiento**
Urola Garaia - Tolosa

# Maiatza — Ekaina 2013




## JABEKUNTZA ESKOLA

**Zer da jabekuntza?**
Jabekuntza esaten dugunean ikaskuntza eta kontzientziatze prozesu bat adierazi nahi dugu, hain zuzen ere, mundu osoko gizarteak egituratzen dituen sexismoak guri, emakumeoi, ezartzen digun diskriminazio eta gutxiegitasun egoera salatzea eta horren kontra borroka egitea ahalbidetzen digun prozesua.

**Zer da Jabekuntza Eskola?**
Ez da ohiko prestakuntza leku bat. Hori baino gehiago, erreproduzitu egiten du Mugimendu Feministak- emakumeok bizi dugun errealitateari izena jarri ahal izatearren- sortu zuen jakintzaren produkzio kolektibo eta partekaturako metodologia. Esperientziak, jakintzak eta narrazioak partekatzea da kontua, baina baita gorputzaz disfrutatzea ere, eta diskurtsoak, artea, errebindikazioak produzitzea, hau da, munduaz dugun pertzepzioa aldatuko digun eta, aldi berean, mundua aldatzeko tresnak eskainiko dizkigun esperientzia bat bizi izatea.

Espazio hau emakumeon partaidetza eta jabekuntza sendotzeko dago pentsatuta, eta gizarte justu, askotariko eta osoago bat lortzeko.

**Tolosa-Urola Garaiko Eskola Sarea:**
Proiektu komuna da, eta estrategiak eta baliabideak partekatu nahi ditu. Horretaz gain, sareak sortzea ere bilatzen du, horien bidez gure herrietan ikusgarriagoak eta aktiboagoak izan gaitezen, eta partaidetza handiagoa izan dezagun.

Izan ere, ez dugu ahantzi behar oraindik ere, XXI. mendean sarturik gaudela jada eta emakumeok diskriminazio handia jasaten dugula: hortxe ditugu, esaterako, bortizkeria sexista, pobreziaren feminizazioa…Eta borroka egin behar dugu errealitate diskriminatzaile horren kontra. Gure arma gure jakituria izango da, hau da, sortzea, gehiago ezagutzea, barre egitea, produzitzea, dantza egitea, gozatzea eta eraldatzea!

## EGITARAUA

### AUTODEFENTSA FEMINISTA BUROKRAZIA EKONOMIKOAREN KONTRA.

Dinamizatzailea: Aurora Iturrioz Lopez. Lizentziatua Zientzia Ekonomikoetan. Militante feminista eta Urola Garaiko berdintasuneko teknikaria

**Maiatzak 17, ostirala / 16:00etatik 20:00etara / KULTUR ETXEA**

Tailera esperientzia pilotu bat da; integratu nahi ditu teoria ekonomikoaren printzipioak aholkularitza fiskal eta laboralarekin. Alde batetik, nahi dugu ikustarazi eta indartu emakumeen autoestimu ekonomikoa; izan ere, ekoizten duten lanak ahalbidetzen du giza bizitzaren ugalketa eta jasangarritasuna. Eta bestetik, baloratu nahi dugu "zaintza lana". Era berean, sartuko gara jarduera ekonomikoen esparru legalean. Enpresen eta autonomoen fiskalitatearen eta karga sozialen gaineko ezagutza batzuk emango dira (fakturazioa, kontabilitateko oinarrizko ezagupen batzuk, BEZa, PFEZa, kotizazio soziala, etab.). Edukiekin lotutako hizkuntza eta oinarrizko kontzeptuak landuko dira (zerga oinarria, zenbateko garbia, zenbateko gordina, atxikipena, kenkaria, salbuespena, errenta zergapetua, errenta exentua, errenta zergagabea). Gainera, ekimen sozialarekin zerikusia duten gaiak ikusiko dira: elkarte sorkuntza, haien finantzaketa. Fakturak egiteko oinarrizko ezagutzak emango dira, eta fakturazioari lotutako, eta beharrezkoak diren, printzipio fiskalak.

### AUTODEFENTSA FEMINISTA TAILERRA

Dinamizatzaileak: Maria Garcia eta Eider Olazar Elduaien, Tolosaldeko Bilgune Feministako kideak.

**Ekainak 14 / 16:00etatik 20:00etara / KULTUR ETXEA**

Autodefentsa Feminista ez da defentsa pertsonal hutsa. Askoz harago doan filosofia, metodoa eta estrategia da. Autodefentsa Feminista, emakumezko espazioetan lantzen da, emakumeen elkartasunetik sortzen baita, eta elkartasun honetan oinarritzen den metodoa da. Era anitzetako erasoak irudikatuz hauei aurre egiteko erantzun indibidual naiz kolektiboez ariko gara. Gure beldurrak identifikatu eta hauei aurre egiten ere ikasiko dugu, baita ezetz esaten ikasi eta gure amorruari toki egiten ere. Autodefentsa feministaren bitartez norberaren gaitasun eta ezaugarri positiboen jabetza landuko dugu. Horretarako, hainbat dinamika eta jolas erabiliko ditugu guztien artean hausnartu eta alternatibak lantzeko. Taldeak eta norbanako bakoitzak hartuko du garrantzia. Guztiok izango gara adituak, guztiok baitakigu erasoei aurre egiten.

### ZAINTZEA, ZAINTZAILEAK ETA ESTRAK

Hizlariak: Miriam Herbón Ordoñez. Aditua genero indarkerian eta emakumeen jabekuntzan. Sortzen Consultoria. S.L. Luciana Davies. Asociación Con Voz

**Maiatzak 30, osteguna / 19:00 / ARANBURU JAUREGIAN**

Zer zaila zaigun emakumeoi mugak jartzea zaintza lanei, nahiz eta hori izan gure lana! Ideia hori oso entzuna dute etxeko emakume langileek, beren lanean gertatzen zaizkien gauzengatik jarduera horretan eroso sentitu ezin diren emakume langileek. Zaintze lanek, gaur egun, ez daukate merezi duten errekonozimendua; eta are okerrago: badago jendea nahasten duena zaintzaile batek jasan behar duena emakumea izatearekin. Lanbide horretan aritzean sortzen diren ondoezez mintzatu nahi dugu hitzaldi honetan. Etxeko lanetan diharduten eta beren askatasuna urratu zaien emakume batzuen lekukotza aurkeztuko da.

### TAILERRA: NORENA DA NIRE DIRUA?

Dinamizatzaileak: Miriam Herbón Ordoñez. Aditua genero indarkerian eta emakumeen jabekuntzan. Sortzen Consultoria. S.L. Luciana Davies. Asociación Con Voz

**Maiatzak 31, osteguna / 16:00 a 20:00 / KULTUR ETXEAN**

Tailer honetan hausnarketako espazio bat irekiko dugu, emakume migratuen jabetze ekonomikorako. Aztertuko dugu ea nola erabiltzen dituzten beren baliabide ekonomikoak eta ea zer nolako zailtasunak dituzten dirua maneiatzeko:beren lanari prezioa jartzeko edota jakiteko zenbateko portzentajearen bidalketa egin behar duten eta zenbat utzi beren bizibiderako. Helburua da sustatzea beren gaitasunak dirua gestionatzeko eta baliabide horren gaineko erabakiak hartzeko.

### ZAINTZEA ASKO KOSTATZEN DA! INTSUMISIOA NAHITAEZKO ZAINTZEARI

Hizlaria: Dominique Saillard Bouyssié. Oreka Sarearen fundatzailea (genero, partaidetza eta kooperazio gaietan espezializatutako kontsultategi feminista). Bere lan ildo nagusietako bat da diagnostikoak eta planak egitea eremu familiar eta profesionaletako zaintzaile emakumeak laguntzeko.

**Ekainak 6, osteguna / 19:00 / ARANBURU JAUREGIAN**

Eremu familiarreko zainketa lanei buruzko azterketa feministaren ardatz nagusi batzuk tratatuko dira: emakumeak baldintzatzen dituzten genero aginduak zaintzaile eginkizunetan; gizonen eta emakumeen esperientzia desberdina zainketa familiar intentsibo baten aurrean; interakzioa zaintzaile migratzaile profesionalen eta euskal familien artean; eta gizarte antolakuntzaren eta bizitzaren jasangarritasunaren oinarria den zainketa lana ikuspegi feminista desberdinetatik. Eta atzean egongo da egungo murrizketa sozialen eszenatokia; izan ere, honek zainketa bihurtzen du oraindik ere are desberdintasun bektore larriagoa.

# Maiatza — Ekaina 2013

**Jabetza Eskola**
**Escuela de Empoderamiento**
Urola Garaia - Tolosa


# Maiatza — Ekaina 2013


### "ZURI ZER KONTATU DIZUTE FEMINISMOAREN GAINEAN?"

Dinamizatzailea: Zaida Fernández Pérez. Lizentziatua Soziologian. Ermuko Emakumeen Asanbladako militante feminista. Bizkaiko Jabekuntza Eskolako irakaslea.

**Maiatzak 10, ostirala / 16:00etatik 20:00etara. / KULTUR ETXEA**

"Feminista naiz" esatea estigmatizatuta dago oraindik, ez dago ondo ikusita: hori "erradikalen" kontua da, "gizonen gainetik egon" nahi duten emakumeena... Bizi dugun gizarte matxistak feminismoa desprestigiatzeko mezuak zabaltzen ditu etenik gabe. Baina ba al dakigu, benetan, zer den feminismoa? Ezagutzen al ditugu mugimendu feministaren borrokak, lorpenak eta ekarpenak? Zer lotura dago feminismoaren eta demokraziaren artean? Tailer honetan hausnartuko dugu gai horietaz eta teoriarekin eta ekintza feministarekin lotura duten gaiez.

### JABETZE ESKOLAK EMAKUMEENTZAT. ZEIN JABETZE MOTAZ ARI GARA?

Hizlaria: Mertxe Fernández Boga. Lizentziatua Filosofian. Plazandreok taldeko militante feminista

**Maiatzak 15, asteazkena / 19:00 / KULTUR ETXEA**
Borroka feministaren bidez orain hamarkada batzuk hasi zen agerrarazten emakumeok, kolektibo bezala, bizi garen gizarteak ikustezin bihurtzen gaituela eta, era berean, mespretxatu egiten gaituela gizonekiko eremu askotan. Agerian jarri dute, bestalde, emakumeei eta gizonei ematen zaien heziketa, desberdintasunean oinarrituta egon arren, normaltzat eta naturaltzat hartzen dugula sarritan. Eta horrek zerikusirik ba al du jabetzearekin? Emakumeok nahi al dugu jabetzea? Zer nolako jabetze mota? Zer nahi dute Jabetze Eskolek?

# Erakusketa — Aranburu Jauregian

### ELKARREKIKO MENPEKOTASUNAK
Etxeko langileak eta Zaintzaren Krisia

**Maiatzak 17tik ekainak 8rarte**
**Koordinatzailea: Esther Moreno**

Hitzaldiak guztiak Aranburu Jauregian izango dira eta tailerra Tolosako kultur etxean

Antolatzaileak: Tolosako Berdintasun Sailak eta
Tolosaldeko Migrazio eta Aniztasun Sailak

ERAKUSKETAREN BISITA GIDATUA, Esther Morenoren eskutik.
Maiatzak 18 larunbata 18tan/Sábado 18 de mayo.

### ZAINTZA LANAREN AITORPENA. TODAS LAS HORAS CUENTAN
Hizlaria: Isabel Otxoa Crespo. AHT-ELE-ko partaidea
**Maiatzak 23, osteguna**
**19:00ARANBURU JAUREGIAN**

Etxeko langileek oso paper garrantzitsua dute mota guztietako zaintza beharrei erantzuteko. Beren lana ez da kontuan hartzen nahita, estrategia baten parte bat bezala, hain zuzen ere, mantentzeko ahalik eta gorenean zaintza lanak erantzukizun familiarren esparruan. Etxeko langileen eskubideen gaineko eztabaidak behartzen du jarrera bat hartzea beste gai batzuen aurrean: denboraren antolaketa, lanaren banaketa emakumeen eta gizonezkoen artean eta gastu soziala.

**Argibide eta Matrikula:**

Izena eman ahal izateko, adierazten den telefono zenbakira hots egin edo e-mailera mezua bidali beharko da, jardueran parte hartzea eskatuz:

943 67 03 83
berdintasuna@tolosakoudala.net
http://tlsbat.net/index.php/eu/jabekuntza-eskola

**Jendearentzako ordutegia:**
11:00- 13:00 eta 16:00- 20:00

**Izena emateko epea:**
Jarduera hasi baino bi egun lehenago bukatuko da.

Jarduera eta ikastaro guztiak doakoak dira. Dohainezko haurtzaindegi zerbitzua ere, aurretik eskatuz gero.



azaleko argazkia: Amaia Gómez

**Jabetza Eskola**
**Escuela de Empoderamiento**
Urola Garaia - Tolosa

# Mayo —
# Junio
# 2013




**Mayo —**
**Junio**
**2013**

**Jabetza Eskola**
**Escuela de Empoderamiento**
Urola Garaia - Tolosa



## ESCUELA DE EMPODERAMIENTO

**¿Qué es el empoderamiento?**
Llamamos empoderamiento al proceso de aprendizaje y concienciación a través del cual las mujeres de todo el mundo hemos podido denunciar y luchar contra la situación de discriminación e inferioridad a la que nos somete el sexismo que estructura las sociedades de todo el mundo.

**¿Qué es la escuela de Empoderamiento?**
No se trata de una lugar de formación típico, más bien, reproduce la metodología de producción colectiva y compartida de saberes que el Movimiento feminista creó para poder nombrar la realidad que viven las mujeres. Se trata de compartir experiencias, saberes, narraciones, pero también de disfrutar con el cuerpo, producir discursos, arte, reivindicaciones, en fin, de vivir una experiencia que cambie nuestra percepción del mundo, pero que al mismo tiempo nos dote de herramientas para cambiar el mundo.
Este espacio está pensado para potenciar la participación y empoderamiento de las mujeres, y para conseguir una sociedad más justa, diversa y completa.

**Red de Escuelas Tolosa- Urola Garaia**
Se trata de un proyecto en común que pretende compartir estrategias y recursos, y que busca también la creación de redes de mujeres que ayuden nos ayuden a ser más visibles, más activas y participativas en nuestros municipios.
No nos engañemos, aún hoy en pleno siglo XXI, las mujeres seguimos padeciendo una fuerte discriminación, ejemplo de ello son la violencia sexista, la feminización de la pobreza...
Es necesario combatir esta realidad discriminatoria. Nuestras armas serán nuestros saberes, crear, conocer más, reír, producir, bailar, disfrutar y transformar!.

# Mayo —
# Junio
# 2013

### A TI, ¿QUÉ TE HAN CONTADO DEL FEMINISMO?.

Dinamiza: Zaida Fernández Pérez. Licenciada en Sociología. Militante feminista de la Asamblea de Mujeres de Ermua. Profesora de la Escuela de Empoderamiento de Bizkaia

**10 Mayo, viernes / De 16:00h a 20:00h / KULTUR ETXEA**

Decir "soy feminista" sigue cargado de estigma, está mal visto porque eso "es de radicales", de mujeres que quieren "estar por encima de los hombres"... La sociedad machista en la que vivimos lanza mensajes de desprestigio sobre el feminismo continuamente, pero ¿Sabemos realmente qué es el feminismo? ¿Conocemos las luchas, los logros y las aportaciones del movimiento feminista? ¿Cuál es la relación entre feminismo y democracia?... En este taller reflexionaremos sobre éstas y otras cuestiones relacionadas con la teoría y la acción feminista.

### ESCUELAS DE EMPODERAMIENTO PARA LAS MUJERES. ¿DE QUÉ PODER HABLAMOS?

Ponente: Mertxe Fernández Boga. Licenciada en Filosofía. Militante feminista de Plazandreok.

**15 de mayo, miércoles / 19:00h / KULTUR ETXEA**

Desde hace varias décadas las luchas feministas han desvelado que las mujeres como colectivo vivimos en una sociedad que nos invisibiliza y menosprecia respecto a los hombres en muchos ámbitos. También han puesto de manifiesto que la educación que se nos da a mujeres y hombres, aunque están basadas en la desigualdad, muchas veces las consideramos normales o naturales. ¿Qué tiene que ver esto con el poder? ¿Las mujeres queremos poder? ¿Qué tipo de poder? ¿Qué pretenden las Escuelas de Empoderamiento?



## PROGRAMA

### AUTODEFENSA FEMINISTA CONTRA LA BUROCRACIA ECONÓMICA.

Dinamiza: Aurora Iturrioz Lopez. Licenciada en CC. Económicas. Militante feminista y técnica de Igualdad de Urola Garaia

**17 de mayo, viernes / De 16:00h a 20:00h / KULTUR ETXEA**

El taller es una experiencia piloto, intenta integrar los principios de la teoría económica feminista con la asesoría fiscal y laboral. Por una lado queremos visibilizar y fortalecer la autoestima económica de las mujeres, ya que el trabajo que producen éstas posibilita la reproducción y sostenibilidad de la vida humana, así como valorar "el trabajo de cuidado".
También se efectuará una introducción al marco legal en el que deben de efectuarse las actividades económicas. Se impartirán nociones sobre fiscalidad y cargas sociales de las empresas y/o autónomas (facturación, nociones básicas sobre contabilidad, IVA, IRPF, cotización social, etc).
Se trabajará sobre el lenguaje y conceptos básicos elementales asociados con los contenidos (base imponible, importe neto, importe bruto, retención, deducción, exención, renta sujeta, renta exenta, renta no sujeta). Además se tratarán temas vinculados al emprendimiento social: creación de asociaciones, financiación para las mismas. Así como nociones básicas para poder hacer facturas, y los principios fiscales necesarios vinculados a la facturación.

### TALLER DE AUTODEFENSA FEMINISTA

Dinamizan: Maria Garcia y Eider Olazar Elduaien. Militantes de Tolosaldeko Bilgune Feminista.

**14 de junio / 16:00 a 20:00 / KULTUR ETXEA**

La Autodefensa Feminista no es sólo defensa personal. Es una filosofía, un método y una estrategia que va más allá. La Autodefensa Feminista se trabaja en espacios de mujeres ya que surge desde la solidaridad entre mujeres y es un método que se basa en ella. Trataremos sobre la respuesta individual y colectiva a las agresiones, mediante la representación de los diferentes tipos de agresiones. Aprenderemos a identificar nuestros miedos y a hacerles frente, así como a decir no y a hacer sitio a nuestra indignación. A través de la autodefensa feminista trabajaremos las facultades y características positivas de cada una de nosotras. Para su consecución utilizaremos diferentes dinámicas y juegos con el fin de estudiar y trabajar, entre todas, las alternativas existentes. Adquirirá importancia tanto el grupo como cada persona. Todas seremos expertas, porque todas sabemos cómo responder a las agresiones.

# Exposición —
# Palacio de Aranburu

### DEPENDENCIAS MUTUAS
Empleadas de Hogar y Crisis de los Cuidados
**Maiatzak 17tik ekainak 8rarte**
**Comisaria: Esther Moreno**

Las charlas se impartirán en el Palacio de Aranburu y el taller en la casa de cultura de Tolosa

Organización: Departamento de igualdad de Tolosa y Departamento de Migración y Diversidad.

Visita guiada de la exposición, con Esther Moreno.
Sábado 18 de mayo a las 18.00h.

### ZAINTZA LANAREN AITORPENA. TODAS LAS HORAS CUENTAN

Ponente: Isabel Otxoa Crespo. AHT-ELE-ko partaidea

**23 de mayo, jueves / 19:00h / PALACIO ARANBURU**

Las trabajadoras de hogar cumplen un papel central en la cobertura de las necesidades de cuidado de toda clase. Su trabajo es deliberadamente ignorado, como parte de la estrategia de mantener el máximo de tareas de cuidado en el ámbito de las responsabilidades familiares. El debate sobre los derechos de las trabajadoras de hogar obliga a pronunciarse sobre otras cuestiones como la organización de los tiempos, el reparto del trabajo entre mujeres y hombres y el gasto social.



### CUIDAR, CUIDADORAS Y EXTRAS

Ponentes: Miriam Herbón Ordoñez. Especialista en Violencia de Género y Empoderamiento de las mujeres. Sortzen Consultoria. S.L. Luciana Davies. Asociación Con Voz

**30 de mayo, jueves / 19:00h / PALACIO ARANBURU**

Que difícil nos resulta a las mujeres poner límites al cuidado aunque este sea nuestro trabajo!. Esta es una idea muy escuchada por aquellas mujeres trabajadoras de hogar que no se pueden sentir cómodas en el ejercicio de su actividad por lo que les pasa en el. El trabajo de cuidar, hoy día, carece del reconocimiento que merece y más grave aún, hay personas que confunden lo que una cuidadora debe soportar por el hecho de ser mujer. De estos malestares en el ejercicio de su profesión es de lo que queremos hablar en esta charla que presentara los testimonios de mujeres trabajadoras de hogar que han visto vulnerada su libertad.

### TALLER: ¿DE QUIÉN ES MI DINERO?

Dinamizan: Miriam Herbón Ordoñez. Especialista en Violencia de Género y Empoderamiento de las mujeres. Sortzen Consultoria. S.L. Luciana Davies. Asociación Con Voz

**31 de mayo, jueves / 16:00 a 20:00 / KULTUR ETXEAN**

En este taller abriremos un espacio de reflexión para el empoderamiento económico de las mujeres migradas analizando el uso que hacen de sus recursos económicos y las dificultades en el manejo del dinero, tanto para poner precio a su trabajo como para decidir qué porcentaje del mismo envían como remesas y qué porcentaje se queda para su subsistencia. Se pretende fomentar sus habilidades en la gestión del dinero y la toma de decisiones sobre estos recursos.

### ¡CUIDAR CUESTA! INSUMISIÓN AL CUIDADO OBLIGATORIO

Ponente: Dominique Saillard Bouyssié. Fundadora de Oreka Sarea, una consultora feminista especializada en temas de género, participación, y cooperación. Una de sus principales líneas de trabajo es la elaboración de diagnósticos y planes para el apoyo a mujeres cuidadoras del ámbito familiar y profesional.

**6 de junio, jueves / 19:00 de la tarde / PALACIO ARANBURU**

Se abordarán algunos de los principales ejes del análisis feminista sobre el cuidado en el ámbito familiar: los imperativos de género que condicionan a las mujeres en el ejercicio de su rol de cuidadoras; la experiencia diferenciada de hombres y mujeres ante el cuidado familiar intensivo; la interacción de las cuidadoras migrantes profesionales con las familias vascas; y los diferentes enfoques feministas de abordaje del cuidado como pilar de la organización social y de la sostenibilidad de la vida. En tela de fondo estará el escenario actual de recortes sociales que convierte los cuidados en un todavía mayor vector de desigualdad.

**Información y Matrícula**
Será necesario formalizar la inscripción llamando al teléfono o escribiendo a la siguiente dirección de email:

943 67 03 83
berdintasuna@tolosakoudala.net
http://tlsbat.net/index.php/eu/jabekuntza-eskola

**Horario de atención al público:**
De 11:00 a 13:00 y de 16:00 a 20:00

**Periodo de inscripción:**
La inscripción podrá hacerse hasta dos días antes de que comience la actividad.

Todas las actividades son gratuitas y se podrá contar con un servicio de guardería previa inscripción y petición

foto portada: Amaia Gómez